



EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

3

EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATE-MAILAN IPARRALDEAN

Jean-Baptiste Coyos

IKER, UMR 5478 (CNRS) - Baiona

Helbide elektronikoa: jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr

Aurkezpen hau hasi baino lehen Ipar Euskal Herriak unibertsitate propiorik ez duela azpimarratu behar da. Baionako campusean kokatzen den Diziplina anitzeko Fakultatea Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko (*Université de Pau et des Pays de l'Adour*, UPPA) adar bat da, halaber campus hortan den Teknologiako Unibertsitate-Institutua. Angelun bere egoitza duen Euskal Kostaldeko Zientzietako eta Ingeniaritzako Formakuntza eta Ikerketa Unitatea UPPAko beste adar bat da.

Bigarren ohar garrantzitsua da euskarak Euskal Ikasketak deitzen den unibertsitaten arteko sailetik kanpo leku guti duela eta horretatik kanpo euskara irakaskuntza-hizkuntza ez dela. Oro har, Euskal Ikasketen sail hori da euskararen presentziaren ardatz nagusia unibertsitate-mailan, egia erran bakarra, nahiz Ipar Euskal Herrian, nahiz Frantzian.

Banaketa geografikoa azalduz, euskara hiru unibertsitate-ikastetxe desberdinetan aurkitzen da, nagusia Ipar Euskal Herrian berean eta beste biak Pauen eta Bordelen. Horiek dira hiru unibertsitate-ikastetxeak: aipatu dugun Baiona-Angelu-Miarritzeko Diziplina anitzeko Fakultatea, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatea eta Michel de Montaigne Bordele 3ko Unibertsitatea. Hiru gune horiei Irakasleen Formazio Unibertsitate-Institutua gehitu behar zaie, Pauen kokatzen dena (*Institut*

Universitaire de Formation des Maîtres, IUFM). Bestalde, han-hemenka, euskararen aukerako irakaskuntza aurki daiteke.

Iker Euskarari eta Euskal testuei buruzko Ikerketa Taldea, euskarari emana den goi mailako ikergune zientifikoa Baionan ere kokatua da, Fakultateko campusean 2008ko urriaz geroz.

1. EUSKAL UNIBERTSITATE-İKASKETEN HISTORIA BI HITZEZ¹

Euskararen presentzia Frantziako unibertsitateetan 1948an hasten dela erran dezakegu, euskararen eta euskal literaturaren katedrako sorkuntzarekin Bordeleko Unibertsitatean. Euskara ikertzen eta irakasten zuen René Lafon irakasleari eskaini izan zaio.

Ordu arte eta XIX. mendeaz geroz, filologo, hizkuntzalari profesional edo amateur batzuek, hoiien artean elizgizonek bereziki, euskara aztertzen zuten. Baina hizkuntza horrek ez zuen egiazko lekurik Frantziako unibertsitateetan.

1948tik euskal ikasketak hirugarren zikloan hasten ziren *Diplôme d'Études Approfondies* delakoarekin, segidan doktoregoa zelarik. 1970ean euskara balio-unitate bat sortu da Paueko Unibertsitatean. 1981ean Baionan berean Bordeleko Unibertsitateko euskara diploma bat sortzen da eta 1986an aukerako euskara unitateak eta unibertsitate-diploma hori Bordele 3ko Unibertsitateko eta Paueko Unibertsitateko gerizaren pean kokatuak dira hitzarmen baten bidez.

1989an euskal ikasketetako bi urteko unibertsitate-diploma (DEUG), lizentzia eta lau urteko unibertsitate-diploma (*Maîtrise*) nazionalak sortzen dira eta ondorioz lehen ziklotik doktoregoaren arteko ibilbidea oso bilakatzen da, azkenean.

1992an euskara irakasteko bigarren hezkuntzan diploma berezia sortu da (CAPES, bigarren hezkuntzako irakasletzarako gaitasun-agiria).

1999an, 1983an sortu zen CNRSari (*Centre National de la Recherche Scientifique*, Frantziako ikerkuntza zientifikoaren zentro nazionala) lotu zaion ikerketa taldeari segida emanez, aipatu dugun Iker ikerketa-unitate mistoa (*Unité Mixte de Recherche 5478*) sortzen dute CNRSk, Bordele 3ko Unibertsitateak eta UPPAk.

2006an Bordele 3ko Unibertsitatearen eta UPPAren arteko 1986ko hitzarmena berritu da berrikuntza batekin: Euskal Ikasketetako Lizentzia, Master eta Doktorego diplomak bi unibertsitateen diploma bateratu bilakatzen dira, bi unibertsitateen zigiluarekin. Holaxe, Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Saila sortua da (UAEIS). Europako goi-mailako irakaskuntzako ibilbideen harmonizazioaren markoan LMD erreforma aplikazioaren ondorioz DEUG diploma desagertzen da.

Ibilbide labur hau 2008ko irailean bukatzen da Euskal Ikasketetako kokapenarekin Baionako Fakultateko campusean.

Oro har, Euskal Ikasketen sail hori da euskararen presentziaren ardatz nagusia unibertsitate-mailan, egia erran bakarra, nahiz Ipar Euskal Herrian, nahiz Frantzian.

2006an Bordele 3ko Unibertsitatearen eta UPPAren arteko 1986ko hitzarmena berritu da berrikuntza batekin: Euskal Ikasketetako Lizentzia, Master eta Doktorego diplomak bi unibertsitateen diploma bateratu bilakatzen dira, bi unibertsitateen zigituarekin. Holaxe, Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Saila sortua da (UAEIS).

2. UNIBERTSITATEEN ARTEKO EUSKAL IKASKETEN SAILAREN ANTOLAKETA (UAEIS): SAIL BAT, BI UNIBERTSITATE ETA HIRU LEKU

Euskal ikasketak Baiona-Angelu-Miarritzeko Diziplina anitzeko Fakultatean (ufr-pluribab.univ-pau.fr)

Arestian erran bezala Baiona-Angelu-Miarritzeko Diziplina anitzeko Fakultatea Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko adar bat baizik ez da. Zuzenbidea, letra modernoak, ekonomia, kudeaketa eta kontabilitatea irakasten dira fakultate horretan. Lanbide-diploma zenbait ere presta daitezke. Ikasgai multzo horri euskal ikasketak gehitzen zaizkio.

Ikus dezagun pixka bat nola azken horiek antolatu diren UAEIS horretan. Euskara, euskal literatura eta euskal zibilizazioa dira formakuntza horren ardatz nagusiak. Euskal Ikasketetako Lizentzia, Masterra eta Doktoregoa presta daitezke eta beraz UPPA Unibertsitatearen eta Bordele 3ko Michel de Montaigne Unibertsitatearen gerizaren pean antolatuak dira. Lizentzia “Licence langues, littératures, civilisations étrangères et régionales” (LLCER, *régionales* “lurraldekoak”) deitzen da, euskara espezialitatetik bat delarik².

Ikasleak euskara jakin behar du eta euskarari buruzko ikasgaiak euskaraz egiten dira nagusiki: euskal gramatika, dialektologia, fonetika historikoa, euskal literatura... Besteak frantsesez egiten dira: lehen edo bigarren hizkuntzak (ingeleza edo espainola, latina edo okzitania), giza geografia, hizkuntza politikak Europan, besteak beste. Didaktikako kurtsorik ez da ematen sail horretan.

Oraingoz, formakuntza horren helburu nagusia euskararen irakaskuntzan lan egin nahi duten ikasleen prestatzea da, lehen edo bigarren hezkuntzan. Ondotik irakasle izateko konkurtsoak gainditu behar dituzte (ikus beherago 4. atala). Baina Euskal Ikasketek formakuntza ona eskaintzen diete ere euskal kulturari, euskal komunikabideetan, hizkuntza politikan, hots euskarari lotu zaizkion lanbideetan lan egin nahi dutenei, euskararen aldetik bederen (ikus 5. atala).

Lan idatzietako hizkuntzaz hori da Xarles Videgain Euskal Ikasketetako irakasleak erraten zuena 1997an : “*Masterrean ikasleak egin memoria da lanik garrantzitsuena: erdaraz edo euskaraz idatz dezake eta badira jadanik euskaraz defendituak izan diren memoria zombait. Kontuan har urte oroz defenditzen diren lanak eskuko eriez kondatzen direla (...). Tesia euskaraz idatz daiteke, frantsesezko laburpen batez horniturik agertzen den ber. Eta euskaraz egin lehenbiziko tesia iaz defenditua izan zen Baionako egoitzan [1996ean beraz]*”³. Hamar urte berantago egoera berdintsua da.

Euskal ikasketak Michel de Montaigne - Bordele 3ko Unibertsitatean (www.u-bordeaux3.fr/.../institut_des_etudes_iberiques_et_iberico_americanes.html)

Erran bezala Euskal Ikasketen Saila Baionan kokatua da, Bordele 3ko Unibertsitateko eta UPPAko babesarekin. Halere Bordele 3an, Ikasketa Iberiko eta Iberiko-Amerikarren Institutuan, euskara irakaskuntza berezia dago. Hiru urteko ziurtagiri bat lor daiteke, Bordeleko unibertsitateetako hizkuntza-agiria CLUB *basque* deitzen dena (*Certificat de langue des universités de Bordeaux*, CLUB). Hiru maila badira: hasiberri, hobekuntza, hobekuntza eta ziurtapen. Ziurtagiri horrekin ikaslea Baionako UAEIS-n sar daiteke. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratutako eskalako B1 mailakoa da.

Bestalde, Bordele 3ko Hizkuntza-Zientzietako Sailan lizentziako hirugarren urtean hizkuntzei hurbilketa konparatzailearen irakaskuntzan lau hizkuntza desberdinen artean euskara aukera daiteke.

Euskal ikasketak Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatean Pauen (www.univ-pau.fr)

Pauen ere aukerako euskara irakaskuntza badago. Ikasleak lizentziako mailakoak dira eta sail anitzekoetarik bildurik : Atzerriko Hizkuntza Aplikatuetoakoak, Letretakoak baina ere Zientzietako Fakultatekoak. Bi maila badaude: hasiberri, tarteko.

Ikerketa zientifikoa: Iker Euskarari eta Euskal testuei buruzko Ikerketa Taldea – UMR 5478 (www.iker.cnrs.fr) :

Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Sailari loturik arestian aipatu dugun Iker ikerketa zentroa daukagu. Goi mailako ikergune zientifiko bakarra da Frantzia osoki euskarari eta euskal testuetan espezializatua. CNRSko, Bordele 3ko Unibertsitateko eta UPPAko zaindaritza hirukoitza dauka.

Iker-k bere dokumentazio-zentroa ideki du 2009an, emendatzen den euskal fondo eta linguistiko batekin (<http://iker-koha.univ-pau.fr/cgi-bin/koha/opac-main.pl>). Alor honetan Fakultateko unibertsitate-liburutegiko, Euskal Erakustokiko eta Baiona herrikoko lekua hartu du, iker-tzaileei, irakasleei eta ikasle aurreratuei eskaintza egokiagoa ekarriz.

Euskarazko artikulurekiko urtekari bat argitaratzen du ere, *Lapurdum* (<http://lapurdum.revues.org>) eta artxibo elektroniko bat dauka, *Artxiker* (<http://artxiker.ccsd.cnrs.fr>) euskarazko dokumentu askorekin.

3. EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATE-MAILAKO BESTE SAIL BATZUETAN

Euskal Ikasteetatik at euskara ikasi nahi luketen edo baliatu nahi luketen ikasleentzat gutxi dira aukera horiek eskaintzen dituzten sailak. Hantemenka irakaskuntza batzuk atzeman daitezke. Horiek dira.

Baionako Diziplina anitzeko Fakultateko beste sailetan

Letra modernoetako lizentzian horiek dira aukerak. Hizkuntza bizi 1 :

Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Sailari loturik arestian aipatu dugun Iker ikerketa zentroa daukagu. Goi mailako ikergune zientifiko bakarra da Frantzia osoki euskarari eta euskal testuetan espezializatua. CNRSko, Bordele 3ko Unibertsitateko eta UPPAko zaindaritza hirukoitza dauka.

Frantziako hezkuntza-programa ofizialetan lehen eta bigarren hezkuntzako ikasle elebidunen hizkuntza-gaitasunak ez dira oraino osoki finkatuak eta azterketa ofizialetan ez dira neurtuak edo gutxi bederen (euskarareriko probak gutxi dira eta arras partzialak).

Euskara (hasiberriak onarturik) – Euskal literatura (Lan gidatua, euskararen ezagutza ez da beharrezkoa). Hizkuntza bizi 2 : 3 maila desberdin, hasiberriak onarturik dira.

Ekonomia-Kudeaketako lizentziako 3. Urtean, euskara hizkuntza bizi 2 edo 3 gisa har dezakete.

Zuzenbideko sailean ere euskara dago ber baldintzetan eta hiru sail horietako ikasleak nahasiak dira, bi taldetan banaturik euskararen ezagutzaren arabera.

Hiru sail horietan euskara aukera bat da, nahitaezko ikasgaietan ez da sartzen.

Baionako Teknologiako Unibertsitate-Institutuan

Baionako Teknologiako Unibertsitate-Institutuan (*Institut Universitaire de Technologie*, IUT) teknologia unibertsitate-diplomak bi urtez prestatzen dira. Batean, merkaturatze-teknikakoan (*DUT de technique de commercialisation*), 1. eta 2. urteetan euskara har daiteke aukera gisa, lau hizkuntza artean. Ikasle gehienak euskaldunak omen dira diplomarako azterketan puntu zenbait eskuratzeko. Irakaskuntzaren bidezko merkaturatze-teknikako sailan ere ikasle batzuk badira euskara aukera gisa hartzen dutenak. Euskara irakaskuntza horrek egiazko lanbide-helbururik ez du.

Bidarteko ESTIA Industria-teknologi aurreratuetakoko goi mailako eskola

Aipa dezagun ere Bidarten bere egoitza duen ESTIA goiko ingeneria-eskola (*Ecole Supérieure des Technologies Industrielles Avancées*, ESTIA). Ikasleek hiru urteko ingeniari-txakak egiten dituzte, produktu-diseinu orokorraren (*Conception Générale de Produits*), prozedura automatizatuen menderapenaren (*Maîtrise des Procédés Automatisés*) eta antolaketa eta kudeaketa industrialaren (*Organisation & Gestion Industrielles*) alorretan.

Eskola elenaritza da. Kurtsoak frantsesez, ingelesez edo gaztelerez ematen baitira. Ingelesa eta gaztelera ezik, urtero 3. hizkuntza ikasteko aukera ematen zaie: alemanera, arabiera, euskara, italiara, txinera, gutiak oinarrizko mailan. Semestre bakoitza baieztatu ondoan (azterketa baten bidez), ikasleek kreditu gehigarri bat eskuratzen dute. Hemen ere motibazioa ez da geroko lanari loturik: batzuk hemen bizi direlako, beste batzuk ikusminagatik.

Ibilbide hori bukatzeko erran dezagun Angeluko Euskal Kostaldeko Zientzietako eta Teknikak Formakuntza eta Ikerketa Unitatean (*UFR de Sciences et Techniques de la Côte Basque*) ez dela gehiago euskara kurtsorik ematen.

Baionako merkataritza eta industria-ganberako kudeaketa eta merkataritza-eskolak (*Ecole de gestion et de commerce*) batxilergotik landako hiru urteko ikasketak eskaintzen ditu. Ingelesa eta gaztelera laneko hizkuntza gisa irakasten dira, ez euskara.

4. EUSKARAREN IRAKASLEEN FORMAKUNTZA ETA HAUTESPENA

Bigarren hezkuntza: CAPESaren prestakuntza Baionan

Lehen ala bigarren hezkuntzan irakasteko formakuntza eta konkurtsoa desberdinak dira. Bigarren hezkuntzan irakasteko bigarren hezkuntzako irakasletzarako gaitasun-agiria eskuratu behar da (*Certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement du second degré*, CAPES). Euskararen CAPESaren prestakuntza Baionako Diziiplina anitzeko Fakultatean egiten da. Irakaskuntza euskaraz egiten da nagusiki, halaber kalifikazio-proba gehienak euskaraz egiten dira.

Diploma horrekin sare elebidun publikoan edo murgiltze ereduan euskara eta euskaraz irakats daiteke. Urtero bi irakasle postu eskaini dira, bat sare publikoan eta bat sare pribatuan, eta bospasei hautagai badaude.

Lehen hezkuntza: Paueko Irakasleeren Formakuntza Unibertsitate-Institutua (*Institut Universitaire de Formation des Maîtres*, IUFM)

Unibertsitate-ikastetxe hortan ikasleek euskara eskualde hizkuntzako konkurtso berezia prestatzen dute lehen hezkuntzako euskara irakasle bilakatzeko, sare elebidun publikoan. 2008z geroz ikastetxe hori Montesquieu - Bordele 4ko Unibertsitateari lotua zaio. Euskarazko kurtsuak badira, baina gehiengo frantsesez dira.

Murgiltze ereduan beste formakuntza ibilbidea dago. Seaskak, ikas-tolen federazioak, bere formakuntza zentro propioa dauka. Hezkuntza katolikoak ere berea dauka.

Oro har ikasleak gutxi dira Frantziako hezkuntza nazionalak urtero lanpostu gutxi ematen baititu, bigarren hezkuntzan baino gehiago halere⁴.

5. HELBURU BATZUK

Euskararen presentzia biziki murrizta da Ipar Euskal Herriko unibertsitate-ikastetxeetan, are gehiago Frantzian Ipar Euskal Herritik kanpo. Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Saitetik at euskara ez da erabilia irakaskuntza-hizkuntza gisa, ikasgaia izanez bakarrik. Euskal Ikasketetako helburu nagusia da euskara irakasleak prestatzea, lehen hezkuntzako nahiz bigarren hezkuntzako, IUFMeko sarrera-proba edo CAPESaren konkurtsoa lortzeko.

Euskara gaitasunaren egiaztatzea

Frantziako hezkuntza-programa ofizialetan lehen eta bigarren hezkuntzako ikasle elebidunen hizkuntza-gaitasunak ez dira oraino osoki finkatuak eta azterketa ofizialetan ez dira neurtuak edo gutxi bederen (euskarareriko probak gutxi dira eta arras partzialak). Eskolatik kanpo, 2008 arte Euskalzaindiak kudeatzen zituen EGaren probak Euskararen Era-

Hau da berriz gure ustez unibertsitatean euskal ikasketen garapena oztopatzen duen arrazoia nagusia: euskara ezagutzen duten ikasle formatuen gizarte-eskaera ahula. Izan ere, lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzatik kanpo gutxi dira Ipar Euskal Herrian euskararen ezagutza behar duten enpleguak.

kunde Publikoak bere gain hartu ditu, Euskal Ikasketetako Sailaren laguntzarekin⁵.

Ebaluaketa eta egiaztapen sistema oso bat obratzeko, eskola-sistematik formakuntzan, helduen euskalduntzean eta etengabeko prestaketan, Euskal Ikasketetako Sailak Euskararen Erakunde Publikoarekin batera definizio eta antolaketa lan bat abiatu du. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan kokatuko da. Partaidetza hori 2009ko martxoaren 3an ofizializatu da UPPAk, Bordele 3k eta Euskararen Erakunde Publikoak izenpetutako hitzarmenaren bidez.

Euskara lan-munduan irakaskuntzatik kanpo

Oztopo handiena euskararen presentziaren hedapenari lan-merkatua da. Ipar Euskal Herrian guti dira irakaskuntzatik kanpo euskararen ezagutza behartzen duten enpleguak.

Erran dugu, gaurko, Euskal Ikasketetako formakuntzaren helburu nagusia euskararen irakaskuntza lan egin nahi duten ikasleen prestatzea dela. Halere, euskararen beste alor profesionaletan aritzeko formakuntza horrek zerbait ekar lezake: iltzulpengintzan, mugaz bi aldetako harreman ekonomikoetan, turismoan, komunikabideetan, ingeniari-tza kulturallean.

Baina euskararen lekuak gizartean balizko ahalbide horiek baldintzatzen ditu eta oraingoz biziki murrizta da Ipar Euskal Herriko bizi publikoan, administrazioan, bizi ekonomikoan.

Oztopoak euskararen hedapenari unibertsitate-mailan

1997an jadanik Videgain irakasleak aipatzen zuen nola Euskal Ikasketen saileko ikasleen kopurua “ttipi” zela. “Gazteria ez da handia, euskaldunen portzentaia urria da” argudiatzen zuen⁶. Puntu horretaz itxaropen zantzu bat daukagu azken inkesta soziolinguistikaren arabera, euskaldunen ehunekoa handitzen ari baita adin multzo gazteenetan eskola-irakaskuntzari esker⁷. Euskara ikasten duten haur kopurua emendatzen ari da urtez urte Ipar Euskal Herrian.

Beste oztopo bat ikasle euskaldunentzat: “Kanpora joan behar izaiten dute, lekuan berean ikasbiderik ez izauteagatik”. Gorago ikusi dugu nola Ipar Euskal Herrian unibertsitate-formakuntza aukerak urriak ziren.

Halere horrez gain hau da berriz gure ustez unibertsitatean euskal ikasketen garapena oztopatzen duen arrazoi nagusia: euskara ezagutzen duten ikasle formatuen gizarte-eskaera ahula. Izan ere, lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzatik kanpo gutxi dira Ipar Euskal Herrian euskararen ezagutza behar duten enpleguak. Eta egoera hori unibertsitateak berak ez du aldatuko, baina bai euskararen aldeko hizkuntza politika eraginkor batek.

Ikasleen formakuntza: euskara gehi beste lanbide-gaitasun bat

Euskarari ongi formatu izatea ez da aski izaneren ikasleentzat. Beste forma-

kuntza izan beharko dute aipatu ditugun lanbide berri horietan aritzeko gai izateko. Edo orain euskararekin lan egiten duten batzuek bezala lane-ko ingurumenean berean beharrezko gaitasunak eskuratu beharko dituzte.

Ipar Euskal Herriko gizartearen euskararako beharrak aldatuko ote diren? Hortan da gakoa. Egoeraren bilakaerak esperantza izpi batzuk ematen dizkigu.■

OHARRAK

1. Data nagusi horiek Euskal Ikasketen sailean irakasten duen Bordeleko 3ko Aurelia Arkotxa irakasleak eman dizkit. Eskerrak zor dizkiot.
2. Lizentzia horren hiru urteetako egitaraua esteka honen pean dago: http://ufr-pluri-bab.univpau.fr/live/digitalAssets/88/88947__guide__Etudes_Licence_Etudes_Basques_2009_-_2010_.pdf.
3. Xarles Videgain, Euskara Baiona-Angelu-Miarritzeko fakultatean, *Jakin*, 1997, 100 zk.: 68. or.
4. Paueko IUFMn adibidez, 2009-2010 ikasturtean bost ikasle baziren lehen urtean eta lau bigarrenean.
5. Euskararen Erakunde Publikoa 2004ko uztailearen 9an sortu den Ipar Euskal Herriko hizkuntza politikarako egitura publikoa da. Bere hiru partaide nagusiak Frantses Estatua Hezkuntza nazionalarekin, Akitania Eskualdeko Kontseilua eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra dira.
6. *Jakin*, 1997, 100 zk.: 68. or.
7. “Elebidun gutxien 25-34 urtekoen artean dago (%11,6) eta gehien aldiz 65 urte edo gehiagokoan artean (%32,4). Dena dela daturik azpimarragarriena, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunen ehunekoa da, %16,1eko baita”, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*, Eusko Jaurlaritza, 2008: 80-81.